



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

PRENTSARAKO OHARRA  
2016/11/24

## **Barrikuntzaren aldeko funtsak zezeilean martxan jartea aurreikusten dau Aldundiak**

José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatu jauna eta Imanol Pradales Ekonomia eta Lurralde Garapeneko diputatua Batzar Nagusietara etorri dira gaur, Foru Aldundiak 2017an, lurraldeko barrikuntzea eta ekonomiaren sustapena bultzatzeko, martxan jarri gura dituan enpresen finantzaketarako tresna biak azaltzeko. Horreetako batentzat “enpresa txikien eta ertainen barrikuntzea bultzatzeko funtsa” izenekoarentzat, “%2,1eko” interes finkoa ezartea aztertzen ari da Aldundia. Funts horretan dirua jarten daben aurreztaileek Elkargiren eta Innofinen abala eta PFEZn %15eko kenkariak izango ditue. Enpresek “600.000 euro arteko” mailegua eskatu ahal izango dabe, “urtariletik edo zezeiletik” aurrera, seguruenez.

Funts horren helburua, hiru urtetan “100 eta 120 milioi euro artean” batzea da. Diru hori, Bizkaiko enpresa txikien eta ertainen proiektu barriztaileak finantzetara bideratuko da. Holango enpresak dira kapitala eskuratzeko orduan “gaiztasun gehien” dituenak. Proiektu barriztaileak Beaz foru enpresak ziurtatuko ditu, geroago Pradalesek baieztu dauenez.

Aitatutako barrikuntzarako funts horregaz batera, Ogasun eta Finantzetako diputatuak baieztu dauenez, Aldundia “kapital alternatiboko funts” batean dabil beharrean, beste “100-120 milioi euro” eskuratzeko. Funts horrek, enpresa “ertainak” finantzen aldetik “epe luzean” indartzen lagunduko dau. Beraz, “jarduera barriak sortzen eta daborduko dagozanak indartzen” lagunduko dau. Enpresek “500.000 eurotik gorako” maileguak eskatu ahal izango ditue, “5 eta 10 urte arteko” amortizazino epeakaz.

Iruarrizagak azaldu dauenez, aurreztaileek funtsetarako egingo dituen ekarpenek abantaila fiskalak be izango ditue, eta horreek Batzar Nagusietan onartu beharko dira, beharrezkoa dan arauzko proiektuaren bitartez. Testu hori “urtarrila eta zezeila artean” egon daiteke egituratuta, hiru foru ogasunek parte hartzen daben Tributuen Koordinazinarako Organutik igaro ostean. Bizkaiko Ogasuna “%15” arteko kenkariak jartea aztertzen dabil “2.000 eta 5.000 euro arteko” ekarpenetarako. Holangoetan, aurrezpena “urtean 300 eurotik gorakoa” izango litzateke.

### **BATZARRETAKO TALDEAK**

Batzarretako talde gehienek begi onez ikusi dabe ekimena. Aukerak erakarteko finantza poloa sortzea “asmo handiko helburua” da, Javier Ruiz PPko bozeroaleak esan dauenez. Baina, dana dala, bere esanetan, Bizkaia “konpetentzia handia” izango dau.

Podemos Bizkaia taldetik, Mikel Isasik, eskintzan “planteamendu etikoa” gehitzea eskatu dau, ez dalako gauza bera “botikak sortzeko edo armak sortzeko barriztetea”, esan dauenez. Diruaren parte bat banka etikoaren bitartez kudeatzea eskatu dau, eta harritura agertu da ekimena ez dalako hiru lurraldeetan martxan jarten. Horri jagokonez, Iruarrizagak esan dau “ohikoak” diran “zortzi edo bederatz” erakundeakaz egingo dala behar, eta funts horreek beste lurralde batzuetara zabaltzea, lurralde bakotzeko Gobernuen eta Batzar Nagusietako indar politikoen esku dagola.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAI A**

PSE-EE taldeak, Carlos Totorika bozeroalearen ahotan, aukeratutako finantza tresnak “egokiak” iruditzen jakozala esan dau, eta bat etorri da Bizkaiko Aldundiarentzat enplegua sortzeak eta ekonomia bizibarritzeak daukan “lehentasunezko ikuspegiagaz”. Ildo berean, Jesús Lekerikabeaskoa EAJ-PNVko batzarkideak zehaztu dauenez, finantza tresna barriak “beste pausu bat” dira barrikuntza bultzatzeko eta enplegua sortzeko ahaleginetan.

## LAGUNTZAK BILBAO BASKETENTZAT

Beste alde batetik, oposizinoko hiru taldek –EH Bilduk, Podemos Bizkaiak eta Bizkaiko Talde Popularrak–, José María Iruarrizaga Ogasun eta Finantzetako diputatu jauna Batzar Nagusietara etortea eskatu dabe, 2013an Bilbao Basket taldeari emondako laguntzak dirala eta Estaduko Kontuen Epaitegiak Bizkaiko Foru Aldundiaren kontra hasi dauen prozeduraren gaineko informazioa emon daian.

Oposizinoaren eretxiz, Estaduko kontuen epaitegiak “zalantzan jarri dau” saskibaloia taldeak urte horretan jaso ebazan 5,3 milioi euroen parte baten “legezkotasuna”, ez dagolako “behar dan moduan justifikauta”. Horrez gain, Estaduko Kontuen Epaitegiak kaleratu dauen idazkian adierazoten danez “ikerketzen dabizen” pertsonak zeintzuk diran esateko eskatu dabe. Iruarrizagak ezezkoa erantzun deutso azken horri, Aldundiagaz zerikusirik ez dauen prozedurea dalako eta datuen babeserako legeak debekau egiten dauelako.

Ogasun eta Finantzetako diputatu jaunak adierazo dauenez, Aldundiaren eretxia ez dator bat Espainiako Erresumako Kontuen Epaitegiaren erespideagaz, eta Foru Erakundeak behin behineko likidazio aktari jagokozan alegazioak daborduko aurkeztu dituala gogoratu dau. Likidazio akta horrek “790.443 euro gehi interesei jagokezan beste 90.098 euro” itzultzea eskatzen dau. Iruarrizagak esan dauenez, laguntzak “epe barruan” justifikau ziran eta, edozelan be, “diru publikoetan ezelangau kalterik eragin barik”.

Dana dala, Aldundia “alkantzeko kontabilidadedeko erantzukizuneko prozeduran” agertu da, holango kontabilidadedeko erantzukizunik ez dagola adierazoteko, bere eretxiz 790.443 euroko diru-laguntzea “modu egokian” justifikau ebalako Bilboko taldeak. Helegiteak aurrera egiten ez badau, Iruarrizagak ez dau baztertu arazoa ohiko epaitegietan bideratzea, Aldundiaren eretxiz, Bilbao Basket taldeak hitzarmena “bete ebalako” eta “behar dan moduan justifikau ebalako”.

Iruarrizagak gogoratu dauenez, Espainiako epaitegiak argitu gura dauena “ez da Aldundiaren kontrako prozedurea, ezta Bilbao Basket taldeagaz sinatutako hitzarmena edo funts publikoen jomugea zalantzan jartea be. Eta askoz gitxiago jarten da zalantzan inork diru-laguntzaren dirua berarentzat gorde izana. Zalantzan jarten dana, taldeak aurkeztu dauen auditoria gastua justifiketako behar bestekoa dan ala ez da”. Aldundiaren eretxiz, auditoria hori “behar bestekoa” da.



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
BIZKAIA

NOTA DE PRENSA  
24/11/2016

## **La Diputación prevé poner en marcha los fondos de innovación en febrero**

Los diputados forales de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, y de Desarrollo Económico y Territorial, Imanol Pradales, han acudido hoy a las Juntas Generales a explicar las dos herramientas de financiación empresarial que pretende poner en marcha la Diputación en 2017 para impulsar la innovación y la promoción económica en el territorio. A través de una ellas, "el fondo de impulso a la innovación de las pequeñas y medianas empresas", las compañías podrán pedir prestado "un máximo de 600.000 euros" previsiblemente a partir de "enero o febrero", con un interés que podría alcanzar el "2,1%". Los ahorradores que aporten dinero al fondo tendrán el aval de Elkargi e Innofin, y deducciones del 15% en el IRPF, ha asegurado Iruarrizaga.

El objetivo de este fondo es captar "entre 100 y 120 millones de euros" en tres años, dinero que irá destinado a financiar proyectos innovadores de pymes vizcaínas, nicho empresarial donde se encuentran las empresas con "más dificultades" a la hora de captar capital. Los proyectos innovadores serán certificados por la empresa foral Beaz, según ha confirmado después Pradales.

Junto al citado fondo de innovación, el diputado de Hacienda y Finanzas ha confirmado que la Diputación está trabajando en un "fondo de capital alternativo" para captar otros "100-120 millones de euros" que ayudará a fortalecer financieramente "a largo plazo" a las empresas "medianas". Contribuirá "tanto a crear nuevas actividades como a consolidar las ya existentes". Las empresas podrán pedir préstamos "superiores a los 500.000 euros" con plazos de amortización de "entre 5 y 10 años".

Según ha explicado Iruarrizaga, la aportación de ahorradores a los fondos para pymes irá acompañado de ventajas fiscales que tendrán que ser aprobadas en las Juntas Generales mediante el correspondiente proyecto normativo. Este texto podrá estar articulado "entre enero y febrero" tras su paso previo por el Órgano de Coordinación Tributaria en el que están presentes las tres haciendas forales. La Hacienda vizcaína baraja deducciones de hasta el "15%" para aportaciones de "entre 2.000 y 5.000 euros", que vendrían a ser un ahorro de "más de 300 euros anuales".

### **GRUPOS JUNTEROS**

La mayoría de los grupos junteros han visto la iniciativa con buenos ojos. Crear un polo financiero para atraer oportunidades es un "objetivo ambicioso" según el portavoz del PP, Javier Ruiz, quien cree que Bizkaia tendrá, por contra, "mucho competencia".

Desde Podemos Bizkaia, su portavoz Mikel Isasi ha pedido que se añada a la oferta el "planteamiento ético", porque "no es lo mismo innovar para crear medicinas que para crear armas", ha dicho. Ha solicitado que parte del dinero se gestione desde la banca ética y se ha extrañado de que la iniciativa no se ponga en práctica en los tres territorios. Iruarrizaga ha



BATZAR NAGUSIAK  
JUNTAS GENERALES  
**BIZKAIA**

señalado a este respecto que trabajarán con las “ocho o nueve” entidades “habituales” y que la extensión de estos fondos a otros territorios depende de los respectivos Gobiernos y de la correlación de fuerzas políticas que se den en las Juntas Generales.

El PSE-EE, en boca de su portavoz Carlos Totorika, ha señalado que las herramientas financieras elegidas le parecen “adecuadas” y ha compartido la “visión prioritaria” que supone para el Ejecutivo vizcaíno la creación de empleo y la reactivación de la economía. En esta misma línea, Jesús Lekerikabeaskoa, juntero del PNV, ha precisado que los nuevos instrumentos financieros suponen “un paso más” en la labor por impulsar la innovación y la creación de empleo.

#### AYUDAS AL BILBAO BASKET

Por otro lado, tres grupos de la oposición –EH Bildu, Podemos Bizkaia y Popular Vizcaíno– habían pedido la presencia del diputado de Hacienda y Finanzas, José María Iruarrizaga, en las Juntas Generales de Bizkaia, para aclarar el procedimiento iniciado por el Tribunal de Cuentas del Estado contra la Diputación en el marco de las ayudas concedidas al Bilbao Basket en el año 2013 para la promoción de la imagen del territorio.

La oposición cree que el tribunal de cuentas del Estado “ha puesto en duda la legalidad” de una parte de los 5,3 millones de euros que el equipo de baloncesto recibió ese año por no estar “debidamente justificado”. Han pedido, además, que la Diputación informe de quiénes eran las personas que estaban siendo “investigadas” según el escrito hecho público por el Tribunal de Cuentas del Estado, algo a lo que se ha negado Iruarrizaga al ser un procedimiento ajeno a la Diputación y porque lo prohíbe la ley de protección de datos.

El diputado de Hacienda y Finanzas ha señalado que la Diputación no coincide con el criterio del Tribunal de Cuentas del Reino de España y ha recordado que la Institución foral ha presentado ya las alegaciones correspondientes al acta de liquidación provisional por el que se solicita el reintegro de “790.443 euros, más otros 90.098 euros de intereses”. Iruarrizaga ha dicho que las ayudas se justificaron “en plazo” y, en todo caso, “sin que se haya presentado menoscabo de caudales públicos”.

En cualquier caso, la Diputación se ha personado en el “procedimiento de responsabilidad contable por alcance” para manifestar su postura de inexistencia de dicha responsabilidad contable, ya que considera que la subvención de 790.443 euros se justificó “correctamente” por parte del club bilbaíno. Iruarrizaga no ha cerrado la puerta a que si el recurso no prospera, el asunto pueda tener recorrido en los tribunales ordinarios, ya que considera que el Bilbao Basket “cumplió” el convenio y lo “justificó convenientemente”.

Iruarrizaga ha recordado que lo que se está tratando de dilucidar por el tribunal español “no es un procedimiento contra la Diputación, ni un cuestionamiento del convenio firmado con el Bilbao Basket, o del destino de los fondos públicos. Y mucho menos está en cuestión que nadie se quedara con el dinero de la subvención. Se cuestiona si la auditoría que ha presentado el club es suficiente para justificar el gasto”. La Diputación entiende que es “suficiente”.